

PLaza

» 40 ■ 'Odisea', artea sortzeko abiapuntu
Homeroren epopeian oinarritutako obren erakusketa zabaldu dute Tonelli eta Palomera artistek Bilbon.



Egiptoko uestezko hieroglifikoak agertzen dituen zeramika puska, Veleian aurkitutakoa. **BERRIA**

Veleia: zalantzak, zalantzak

Aztarnategiko aurkikuntzen inguruko susmoak ez dira baretu, eta Arabako Foru Aldundiak batzorde zientifiko berria osatu eta ikerketei bultzada ematea erabaki du.

ALBERTO BARANDIARAN

Eliseo Gil Iruña-Veleiako aztarnategiko zuzendaria Arabako batzarretan baliabide gehiago eskatu zituen egun berean, indusketako aurkikuntzen inguruko dudak eta galderak inon baino maizago hazitatu dituzten eztabaida guneetan sutan ziren ordenagailuak. Abenduaren 20an, Iñigo Uribe-Etxebarria aztarnategiko komunikazio arduradunak, Veleiako aztarnategia sustatzeko promoziozko bideoa eskegi zuen youtube.com atara.

Nefertiti Egiptoko jainkosaren uestezko idatzunak zalantzak areagotu ditu

Diputazioak txosten zientifiko sendoa lehenetsi du beste edozein urrats egin baino lehenago

rian. Bertan, besteak beste, Egiptoko Nefertiti jainkosaren izena irakur zitekeen hezur luze eta mehar baten azalean grabatuta. «Iruzurra agerian geratu da!», aldarrikatu zuten hainbat adituk. Nefertiti izen hori ezinezkoa zela noiz eta III. mendean, non eta Gasteiz ondoan.

Horregatik, paradoxa: Veleiako zuzendaria nazioarteko adituen txosten eta ikerketa gehiago egiteko prest agertzen zen egunean; ikerketa guztien ondorio zientifikoak aurkezteko data berriak proposatzen zituen bitartean; hau da, zalantza guztiak argitzeko urrats bat aurrera ematen zuen egunean bertan, orduan bere lepoa mozteko gudu dantza aditzen zen, inoiz baino ozenago, adituen foroetan.

Berriro, zalantzen katea. Berriro, «harridura infinitua». Berriro, susmoa.

EHU-KO KATEDRADUNEN ZALANTZAK. Ez da berria. Euskarazko idatzunak notizia zabaltzen hasi eta berehala, filologia eta antzinako historian adituen harridura ez da gutxi batzuen kontua izan. Eta EHUko hainbat irakasle publikoki azaldu dute ezinegona.

Joaquín Gorrotxategi hizkuntzalariak, esaterako, hasieratik agertu zituen dudak euskarazko zein latinezko idatzunei buruz. «Aipuak, banan-banan hartuta, oso bitxiak dira» arrazoi du, «eta

denen artean espero ezin genezkeen multzoa osatzen dute». Gorrotxategi ez ditu, ez bakarrik, *edan*, *ian*, *lo* eta gisako euskarazko idatzunak zalantzan jarri. «Egiptoko faraoiei buruzko aipuak agertzea, arraroa da; kalbario bat agertzea, arraroa da; idatzunetan komak agertzea, arraroa da». Eta, orain, Nefertiti.

Hainbat egiptologo, adituak eta zaleak, bekainak erre beharrean

aritu dira azken bi asteotan hezuraren argazkia dekodeatu nahian. Eta azalaren gainean grabatuta dauden izenak duarik gabe Niifiirtiti eta Niifiirtari direla ondorioztatu dute. Eta zalantzak handiagotu zaizkie.

Jainkosa famatuaren garaian iraultza sozial, erlijioso eta politiko garrantzitsuak gertatu ziren Egipton, eta hura hil eta gero, kontraerreforma moduko atzerapau-

Gorrotxategi, Lakarra eta Knorr, batzorde zientifiko berrian

Arabako batzarretan joan den astean egindako agerraldian, Eliseo Gilek Foru Aldundiaren parte-hartze handiagoea eskatu zuen, eta badirudi Diputazioak erantzun egingo duela. Lehen urratsak, hala ere, indusketan agertutako *ostraka* eta idatzunak benetakotasunari buruzko txosten sendoa egitea izango da. Foru Aldundiko arduradunek horixe jarri diote aldeari lehen egin beharra, eta, horretarako, hainbat adituk osatutako batzorde zientifikoak eratzea erabaki du. Bertan egoteko deia jaso dute Joaquín Gorrotxategi, Joseba Lakarra eta Henrike Knorr hizkuntzalari eta filologoen, Santos Yanguas historialariak, Agustín Azkarate eta Julio Nuñez arkeologoen, Fernando Legarda eta Juan Manuel Madiaga kimikariek, Pilar Cipres epigrafistak,

Andres Valdeon arkeologoak eta Felix Lopez Museoen zerbitzuko buruak. Batzordearen zeregina aztamak berraztertzea haiei buruzko iritzia ematea izango da. Horretarako, Diputaziotik jakinarazi dutenez, «epe laburrean» hasiko dira aditu guztiak lanean.

Agerraldi berean, indusketarako eta proiektu berrietarako baliabide eta aurrekontu handiagoea eskatu zuen Eliseo Gilek. Diputazioko iturriek bat egin dute, oro har, aztarnategiari buruzko egitasmo berriekin, baina Fundazioa osatu eta nazioarteko kongresua antolatzeke urratsak, betiere, batzordeak egin behar harko lukeen onespena eta gero etorriko litzateke. Nolanahi ere, zuzendariaren «erabateko konfiantza» berretsi dute foru arduradunek.

so orokorra. Agintari berriek Nefertitiren aipamen guztiak kronikatetik desagerrarazi zituzten, eta ez greziarrek ez erromatarrek ezta egiptotarrek ere, ez zuten haren berri izan. XX. mendearen hasieran, eta beste faraoi zenbaiten hilotan egindako aurkikuntzei esker, jainkosaren izena ezaguna egin zen.

Hori nahikoa ez eta izenaren grafiak arazo bat baino gehiago ematen du.

TRANSKRIPZIO ARAZOAK. Egiptotarrek, semitek bezala, ez zituzten bokalak transkribatzen, eta Egiptoko izenak gaur egun ezagutzen ditugun bezala idazteko araua XIX. mendearen bukaeran erabaki zituzten orduko egiptologoen. Parisko Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS) erakundearen lan egiten duen Juan Carlos Moreno egiptologoa, www.egiptologia.com webgunean, Nefertiti (edo Niifiirtiti) Nfrt (edo *nfr.u.itn* edo *nfrt.y.ty*, grafien arabera) izenaren egungo transkripzio modernoak besterik ez dela azaldu du.

«Ez da inoiz ahaztu behar» idatzi du Morenok, «hautazko sistema horren helburu bakarra izen egiptotarrek errazago ahoskatzea zela, ikerlariak, gehienbat, hizkuntza germaniarrez (ingeleza edo alemana) edo latinez mintzo baitziren, eta horien fonetika oso ezberdina baitzen hizkuntza kamito-semitikoen aldean, hau da, antzinako egiptotarren familiaren aldean». Laburbilduz: XX. mendekoa dela, antza, Nefertiti izenaren transkribapena.

Eta, hain justu eztabaida gorrian zegoenean, astelehen honetan bertan, jainkosaren izena agertzen zuen bideoa kendu zuten saretik.

Baina susmoak ez dira bakarrik webguneetan aditzen. EHUko filologoak izan dira zalantzak inork baino ozenago salatu dituztenak, eta frogak ikusi eta aztertu ahal izatea eskatu dute. Gaur egun, horregatik, ezkortasuna da nagusi haien artean. «Ilu» diote, Veleiako idatzunak galdetzen dietenean. Eta emaitzen argitalpenaren zain, ez dute hitz egin nahi.

Bitartean, Eliseo Gilen taldeak aurrera egitea erabaki du. Agertutako idatzunak benetakotasuna edo faltsutasuna frogatzeko inolako urratsik ez dela eman ohartuta, aurkikuntzak nazioartean zabaltzea eta frogak berriro errepikatzea proposatu du. Eta izen handiko adituen parte-hartzea eskatu. Horien artean, Edward C. Harris arkeologoa. Helburua, «edo zein zalantza uxatzea, eta zientifikoaren adostasun zabalena eskatzea».

Veleiako taldeak urte hau izango du horretarako.